# Elkarguneako bazkidetza kuoten ordainketa hilero egingo da eta ez hiru hilez behin, orain arte bezala

2016/12/29, Osteguna - 09:54

Herritarrei Elkarguneako bazkidetza kuoten ordainketa errazteko, hilerokoa izatera pasatuko da. Orain arte, hiru hilez behin kobratzen zuen Elkarguneak baina hemendik aurrera hilero -hilabete hasieran- kobratuko du, urteko kuota hamabitan zatituz.

Modu horretara, administrazioak lan gehiago izango duen arren, aldi bakoitzean herritarrek ordaindu beharreko kopurua baxuagoa denez, erabaki hau bazkideentzat lagungarria izango delakoan hartu da.

Aldaketa honek bazkidetza kuotei soilik eragiten die, gainerako jarduera edo aktibitateak hiru hilabetetik behin ordaintzen jarraituko dute bai bazkideek eta bai bazkide ez direnek.